

## **ADINEKO AUTONOMOENTZAKO OSTATU- ETA BIZIKIDETZA- ZERBITZUEI BURUZKO UDAL- ARAUDIA**

### ATARIKO TITULUA

#### *1. artikulua. Xedea.*

Arautegi honek xede hauek ditu:

- I. Adineko autonomiadunak udal eskumeneko ostatu baliabide edo ekipamendu alternatiboetan txertatzeko prozedurari dagozkion arautegi komuna eta erregulazioa ezartzea.
- II. Adineko autonomiadunei zuzendutako ostatu eta/edo elkarbizitza alternatiba normalizatuak arautzea. Zehazkiago, honako zerbitzu edo baliabide hauek arautzen dira: Familietan hartzeko programak, apartamentu sozialetan/balioanizetan hartzea, komunitate etxebizitzak eta bizitegi ekipamenduko udal plazak.

#### *2. artikulua. Aplikazio esparrua.*

Arautegi honetan arautzen diren zerbitzu eta programak Pasaia udalean garatuko dira, udalak gizarte zerbitzuen alorrean dituen eskuduntzen esparruan.

#### *3. artikulua. Helburu orokorrak..*

Arautegi honetan adineko autonomiadunei zuzendutako zerbitzuak arautu dira. Horien bidez, honako helburu hauek lortu nahi dira:

## **REGLAMENTO MUNICIPAL DE SERVICIOS DE ALOJAMIENTO Y CONVIVENCIA PARA PERSONAS MAYORES AUTÓNOMAS**

### TITULO PRELIMINAR

#### *Artículo 1. Objeto.*

Es objeto de este Reglamento:

- I. El establecimiento de la normativa común y la regulación del procedimiento de acceso de las personas mayores autónomas a los diferentes recursos o equipamientos alternativos de alojamiento, de competencia municipal.
- II. La regulación de las alternativas de alojamiento y/o convivencia, de carácter normalizado, dirigidas a personas mayores autónomas. En concreto, se regulan los servicios o recursos siguientes: alojamiento en apartamentos sociales/polivalentes, familias de acogida y plazas municipales en equipamiento residencial.

#### *Artículo 2. Ambito de aplicación*

Los servicios y programas que se regulan en este reglamento se desarrollarán en el término municipal de Pasaia dentro del ámbito de las competencias municipales en materia de servicios sociales.

#### *Artículo 3. Finalidades generales.*

La prestación de los servicios dirigidos a personas mayores autónomas regulados en el presente reglamento persigue las siguientes finalidades:



a) Adinekoei ohiko ingurunean ahalik eta denbora gehienez eta ahalik eta baldintzarik egokienetan jarraitzeko erraztasunak jartzea, autonomia galera prebenitzeko eta/edo arintzeko beharrezkoak diren laguntza zehatzak bermatuz.

b) Adinekoa komunitatean bizitzea. Horretarako, hura gizarte sare batean txertatzea sustatuko da; horrek, batetik, kalitatezko harremanak jarriko ditu haren eskura, hau da, laguntza (emoziozkoa, informazio mailakoa eta instrumentala) eta bestetik, bere nortasuna finkatzea ahalbidetuko du, harekiko begirunezko arreta pertsonalizatuaren bitartez.

c) Dagoen zerbitzu eskaintza handitzea, komunitate mailako aukera integratzaile eta normalizatuak eskainiz, gizarteak dituen behar eta eskariei familiakoaren antzeko elkarbizitza esparru batetik erantzuteko. Baliabideak bideratuko dira autonomiadunen bizi kalitatea hobetzera, eta emango diren zerbitzuek bizitokiaren logikari helduko diote, hartara pertsonen nahi eta beharrei modu egokian erantzun ahal izateko.

d) Bi belaunaldien arteko elkartasunezko eta elkarrekiko laguntzako harremanak sustatu eta erraztea.

e) Beste zerbitzu batzuek esku hartzea eska lezaketen premiazko egoerak antzematea.

## I. TITULUA. ARAUTEGI KOMUNA

### 1. KAPITULUA. ERABILTZAILEEI DAGOKIENA.

#### *4. artikulua. Erabiltzaileak zehaztea: Zerbitzuetan txertatzeko betebeharrak.*

Araudi honetan arautzen diren zerbitzu edo baliabideetan txertatu nahi diren

a) Favorecer la permanencia en el medio habitual el mayor tiempo y en las mejores condiciones posibles, asegurando la provisión de apoyos precisos para prevenir y/o compensar la pérdida de autonomía.

b) Mantener a la persona mayor en comunidad facilitándole y promoviendo su integración en una red social que le provea de relaciones de calidad, estos es, de apoyo (emocional, información e instrumental) y afirmación, mediante una atención personalizada respetuosa con la persona mayor.

c) Ampliar la oferta de servicios existente ofreciendo opciones de carácter comunitario, integrador y normalizado que respondan a las necesidades y demandas sociales en un marco de convivencia similar al familiar. Recursos orientados a mejorar la calidad de vida de los mayores autónomos con prestaciones que funcionen con la lógica del domicilio, que permitan satisfacer los deseos y necesidades de las personas de una manera adecuada.

d) Promover y facilitar las relaciones solidarias y de ayuda mutua entre dos generaciones.

e) Detección de situaciones de necesidad que pudieran requerir la intervención de otros servicios.

## I. TITULO. NORMATIVA COMUN

### 1. CAPITULO 1.DE LAS PERSONAS USUARIAS

#### *Artículo 4. Determinación de las personas usuarias: Requisitos generales para el acceso a los servicios.*

Las personas que deseen solicitar el acceso a alguno de los servicios o

pertsonek honako betebeharrak bete beharko dituzte:

a) Eskara egiten den unean 60 urte beteta izatea. Irizpide horrekiko salbuespenak ezarri ahal izango dira, baldin eta baliabidearen beharra eta eskatzailearen egoera pertsonala ongi dokumentatu eta ziurtatzen badira, dagokion txosten teknikoak nahikoa justifikatuta.

b) Pasaian erroldatuta egotea, gutxienez azken bi urteetan, edo azken 10 urteetan txandakako 8 urtez erroldatua egon dela justifikatzea.

Salbuespen gisa, Pasaian jaioak izaki familiar biltzeko edo gizarte mailako arazoak direla medio itzuli nahi duten pertsonak betebeharrak horretatik aske utzi daitezke. Horretarako, aldezturik, zerbitzu teknikoak dagokion txostena egin behar dute.

c) «Adineko autonomiadun»tzat hartua izatea, Gizartekintzak kasu bakoitzean ebazitako balorazio eskalaren arabera.

d) Osasun zentroetan etengabeko laguntza jasotzea edo osasun publikoko neurriak hartzea eskatzen ez duen osasun egoera agertzea.

e) Egoitzaren elkarbizitza kalte larriak eragin diezazkiokeen portaera desorekarik ez jasatea.

## *5. artikulua. Zerbitzuen erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak.*

### **5.1. Eskubideak:**

Zerbitzu hauen erabiltzaileek honako eskubide hauek dituzte:

— Orientatua izateko eskubidea. Behin pertsonaren behar zehatza ebaluatu ondoren, egoera zehatz horretara ondoen egokitzen diren zerbitzuetara orientatuko da. Hala, laguntza emango

recursos que se regulan en el presente reglamento, deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Haber cumplido 60 años de edad en el momento de la solicitud, pudiéndose establecer excepciones a este criterio en casos en los que la necesidad del recurso y la situación personal del demandante esté debidamente documentada y acreditada, debiendo de ser suficientemente justificada por el informe técnico oportuno.

b) Estar empadronado los dos últimos años, como mínimo, en el término municipal de Pasaia o justificar un empadronamiento alternante de 8 años en los últimos 10 años.

Excepcionalmente, previo informe de los servicios técnicos, este requisito podrá ser eximido para aquellas personas que habiendo nacido en Pasaia deseen retornar por motivos de reagrupación familiar o de carácter social.

c) Ser considerada «persona mayor autónoma» según la escala de valoración de aplicación en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, en cada momento.

d) Presentar un estado de salud que no requiera asistencia continuada en instituciones sanitarias ni la adopción de medidas de salud pública.

e) No padecer trastornos de conducta que puedan perturbar gravemente la convivencia en el establecimiento.

## *Artículo 5. Derechos y obligaciones de las personas usuarias de los servicios.*

### **5.1. Derechos:**

Las personas usuarias de estos servicios tienen:

— Derecho a ser orientado. Evaluada la necesidad concreta de la persona, se le orientará hacia los servicios o prestaciones que resulten más adecuados a su concreta situación, para



zaio eskaera egiteko erabakia hartzeko garaian, haren eskura beharrezko informazio guztia jarritz, bai zerbitzu edo programaren edukari eta prezio edo laguntzei buruz, bai zerbitzu horretan txertatzeko prozeduraren inguruan.

— Zerbitzuan txertatzeko eskubidea. Nork zerbitzuan sartzeko eta hura nahita jasotzeko eskubidea izango du, sexu, arraza, erlijio, ideologia edo beste edozein arrazoi pertsonal edo sozialengatik diskriminaziorik jasan gabe, baita zerbitzua aldi baterako edo behin betiko uzteko eskubidea ere.

— Zerbitzu egoki bat jasotzeko eskubidea: Zerbitzua udalerriko edozein hizkuntza ofizialetan jasotzeko eskubidea eta erabiltzaileen pribatutasuna, autonomia eta duintasuna errespetatua izateko eskubidea. Baliabideen arabera, zaharrek toki pribatuak izateko eta nork bere irizpidearen arabera erabiltzeko eskubidea izango dute.

— Konfidentzialtasun eskubidea. Zerbitzua bideratu eta ematearen ondorioz ezagutuko diren datu pertsonalak konfidentzialak izango dira, eta abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoari lotuko zaizkie.

— Informazioa jasotzeko eta parte hartzeko eskubidea. Eskatzaileek informazioa jasoko dute eta kontsultatuak izango dira beren interesekoak izan daitezken alderdien inguruan; gainera, erreklamazio eta iradokizunak aurkezteko eskubidea izango dute. Horretarako, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan eta ekipamenduetan, idatziz erreklamatzeko eskariak jarriko dira erabiltzaileen eskura. Erabiltzaileei arau eta arautegi guztiak jakinaraziko zaizkie, eta haiek parte hartzeko aukera izango dute, batetik, arau horiek egiteko prozesuan,

ayudarle en la toma de decisión de formalización de la petición, ofreciéndole información tanto sobre el contenido y precios o ayudas del servicio o programa como del procedimiento para acceder al mismo.

— Derecho de acceso. Acceder y recibir voluntariamente el servicio sin discriminación por razón de sexo, raza, religión, ideología o cualquier otra condición o circunstancia personal o social y cesar, provisional o definitivamente, de su prestación por voluntad propia.

— Derecho a un servicio adecuado: Derecho a recibir el servicio en cualquiera de las lenguas oficiales del municipio y a que se respeten la privacidad, autonomía y dignidad de los usuarios. En la medida de las posibilidades, las personas mayores tendrán derecho a disponer de espacios privados y a utilizarlos según su criterio.

— Derecho a la confidencialidad. Los datos de carácter personal que se conozcan con ocasión de la tramitación y prestación del servicio serán confidenciales y se ajustarán a lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.

— Derecho a información y participación. Recibir información y ser consultadas respecto a cualquier aspecto que pueda afectarles en su calidad de usuarias, a presentar quejas y sugerencia para lo cual existirán, a disposición de las personas usuarias, tanto en los Servicios Sociales de Base como en los diferentes equipamientos, instancias de reclamación por escrito. Los usuarios estarán informados de todas las normas y reglamentos, pudiendo participar en su elaboración, así como en los sistemas de participación que estén previstos en

eta bestetik, zerbitzu bakoitzean aurreikusita dauden parte-hartzeko sistemetan.

#### 5.2. Betebeharrak:

Zerbitzuen erabiltzaileek honakoak bete beharko dituzte:

- Zerbitzuak ematen esku hartzen duten profesionalen lana erraztea, haiei laguntzea eta haiek zuzentasun eta begirunez tratatzea.
- Nork bere bizitza eta arreta pertsonaleko erregimenaren ardura hartzea, kasu bakoitzean ezarrita dauden funtzionamendu arauak ezinbestean errespetatuz.
- Gizarte langilearen eskura hark beren egoera sozio-ekonomikoa baloratzeko behar dituen dokumentuak jartzea.
- Plaza erreserbatzea eragin lezaketen gorabeherak aldeztatik jakinaraztea.
- Zerbitzua ematen ari den bitartean, eskatzailearen baldintza pertsonalak aldatzen badira, bereziki egoera sozio-ekonomikoari dagokionez, eta aldaketa horrek zerbitzuaren edozein alderditan eragiten badute, eskatzaileak lehenbailehen emango die udal teknikariei aldaketa horien berri.
- Azaldutako epean, zerbitzuaren kostutik esleitu zaien portzentajea ordaintzea; horretarako, udal teknikariei jakinaraziko diete ordainketa egingo den bankua eta kontu korrontearen zenbakia.

Betebehar horietako bat ez betetzeak zerbitzua etetea edo iraungitzea eragin dezake, arautegi honek araututako prozeduraren arabera.

cada servicio.

#### 5.2. Obligaciones:

Las personas usuarias de los servicios deberán:

- Facilitar, colaborar y tratar con corrección y respeto a los profesionales intervinientes en la prestación del servicio.
- Responsabilizarse de su régimen de vida y atenciones personales obligándose a respetar las normas de funcionamiento establecidas en cada caso.
- Aportar al trabajador social los documentos necesarios para valorar su situación socioeconómica.
- Comunicar con antelación las incidencias que pudieran suponer la reserva de la plaza.
- Comunicar con la suficiente antelación al personal técnico municipal las circunstancias personales sobrevenidas que conlleven una alteración en cualquiera de los aspectos de la prestación del servicio que se realiza, especialmente de su situación socioeconómica.
- Abonar el porcentaje asignado del coste del servicio, en el plazo señalado para lo cual facilitarán al personal técnico municipal la entidad bancaria y el número de cuenta corriente por la que se realizará el pago.

El incumplimiento de alguna de estas obligaciones podrá dar lugar a la suspensión o extinción del servicio de conformidad con el procedimiento regulado en este reglamento.

## 2.KAPITULUA. SARTZEKO PROZEDURARI DAGOKIONA

### 1. ATALA. Eskatzaile zerrendetan sartzeari dagokiona

#### *6. artikulua. Zerbitzu eta/edo programen eskatzaileen zerrendak.*

Zerbitzuaren eskatzaileen zerrenden bitartez, zerbitzua esleitzeko lehentasun ordena ezartzen da, I. eranskinean ezarritako sarrera baremoa aplikatuz lortutako puntuazioaren arabera.

Zerbitzuaren eskatzaileen zerrendetan zerbitzuan sartzeko gai izatea onartu zaien pertsonak egongo dira; horiei, ordea, oraindik ez zaie plazarik esleitu, ebazpenaren egunean haietzako plaza hutsik ez zegoelako.

Plazarik esleitu ez zaien pertsonak txostena berraztertze eskaera egin dezakete, baldin eta beren egoera pertsonaletan gertatutako aldaketek egindako balorazioa alda badezakete; horretarako, ezinbestekoa izango da aldaketa horiek ongi egiaztatzea.

Zerbitzuaren eskatzaileen zerrendak publikoak dira, alor horretan aplikatu beharra dagoen araudiaren ondorio diren mugei utzi gabe, bereziki pertsonen intimitate eskubideari dagokionez. Legezko interesa ziurtatzen duten pertsonen zerrenda horien edukiari lotutako ziurtagiriak igorriko zaizkie, haiek horretarako eskaera egin ondoren.

Eskatzailearen mendekotasunaren balorazioa alda daiteke, Gizartekintzak erabilitako eskalaren arabera, eta horrek eragin dezake pertsona hori mendekotzat hartzea. Kasu horretan, Pasaia Udalak eskubidea izango du, ofizioz eta Alkatearen ebazpena betez, eskatzaileari eskatzaileen zerrendan baja emateko. Pertsona hori, baina, berriz ere zerrendan txerta daiteke, balorazio

## CAPITULO 2. DEL PROCEDIMIENTO DE ACCESO

### SECCION 1.ª Del acceso a las listas de demandantes

#### *Artículo 6. Listas de demandantes de los distintos servicios y/o programas.*

Las listas de demandantes del servicio son los instrumentos a través de los que se ordena la prioridad en la asignación del servicio, según la puntuación obtenida aplicando el baremo de acceso establecido en el anexo I.

En las listas de demandantes del servicio estarán aquellas personas a quienes, habiéndoseles reconocido la procedencia del acceso al servicio, no se les haya asignado plaza por no existir vacantes en la fecha de la resolución.

Las personas interesadas a las que no se les hubiera asignado plaza podrán instar, acreditándolo convenientemente, la revisión de su expediente cuando la variación de sus circunstancias personales pudiera modificar la valoración efectuada.

Las listas de demandantes del servicio son de carácter público, sin perjuicio de las limitaciones derivadas de la normativa aplicable en la materia, y especialmente en lo referente al derecho a la intimidad de las personas. Previa solicitud, serán expedidas certificaciones relacionadas con su contenido a quienes acrediten un interés legítimo

El cambio de valoración de la dependencia de la persona demandante, según la escala utilizada por la Diputación Foral de Gipuzkoa, que conlleve su consideración como persona dependiente, facultará al Ayuntamiento de Pasaia para darle de baja de la lista de demandantes de oficio y en virtud de resolución de la Alcaldesa, pudiendo posteriormente reincorporarse a la lista

berri baten ondoren berriz ere autonomotzat jotzen bada.

*7. artikulua. Eskatzaileen zerrendan sartzeko eskaera.*

Arautegi honetan araututako zerbitzuen eskatzaile zerrendetan sartzeko, interesatuak Pasaia alkateari zuzendutako eskaera inprimaki normalizatua bete eta izenpetuko du. Ondoren, eskaera hori aurkeztuko du, Pasaia Udaleko Gizarte Ekintza Sailean.

Prozesuaren edozein unetan, interesatuak bertan behera utz dezake eskaera, idatzi bat eginez. Horrek txostena artxibatzea eragingo du.

*8. artikulua. Eskaerarekin batera aurkeztuko den dokumentazioa.*

Eskaerak honako dokumentu hauekin batera aurkeztuko dira:

- NAREN edo balio bereko edozein dokumenturen fotokopia.
- Gizartekintzako Balorazio Unitateak egindako balorazioa; horretan adieraziko da eskatzailea pertsona autonomotzat jo dela.
- Oraingo osasun egoeraren berri ematen duen txosten medikoa.
- Osasun txartelaren fotokopia.
- Behar denean, ezgaitasunen bat jasaten duten eta/edo eskatzailearekin bizi diren pertsonen ezgaitasun-ziurtagiria, Gizartekintzak edo organo ofizial eskudunak egina.
- Egoera ekonomikoari buruzko datuak:
  - Eskaera egin aurretiko lau urteetako ondasun higigarri eta higiezinen

si tras una nueva valoración es calificada nuevamente como autónoma.

*Artículo 7. Solicitud de acceso a las listas de demandantes.*

El acceso a las listas de demandantes de los servicios regulados en el presente reglamento se realizará previa petición de la persona interesada en impreso normalizado dirigido a la Alcaldesa del Ayuntamiento de Pasaia, firmado por la persona solicitante y presentado en el Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Pasaia.

En cualquier momento del proceso, la persona interesada puede desistir de su solicitud, en cuyo caso deberá hacerlo por escrito. Este hecho conllevará el archivo del expediente.

*Artículo 8. Documentación que se deberá adjuntar con la solicitud.*

Las solicitudes irán acompañadas de la siguiente documentación:

- Fotocopia del documento de Identidad, o cualquier documento de identificación equivalente.
- Valoración emitida por la Unidad de Valoración de la Diputación Foral de Gipuzkoa en el que conste que el solicitante ha sido valorado como persona autónoma.
- Informe médico del estado de salud actual.
- Fotocopia de la tarjeta sanitaria.
- Certificado, en su caso, de Discapacidad expedido por la Diputación Foral de Gipuzkoa o por el órgano oficial competente de aquellas personas que lo padezcan y/o convivan con la persona solicitante.
- Datos de la situación económica:
  - Declaración jurada de bienes muebles e inmuebles referida a los cuatro años anteriores a la solicitud.



zinpeko aitortpena.

- Pertsona Fisikoen errenta zergaren azken aitortpenaren fotokopia. Bestela, aitortpena egitera derrigortuta ez dagoela bermatzen duen Ogasun Ziurtagiria.
- Ondasun higiezin eta jarduera ekonomikoen ziurtagiria.
- Pentsio eguneratuen ziurtagiria, pentsio horiek ematen dituen erakundeak igorritakoa.
- Aurrezki libreta, kontu korrante, bonu, akzio, epe finkorako aurrezki orri eta abarren posizio eguneratuen ziurtagiria, bankuak egina.
- Eskatzailearen bankua eta kontu korrontearen zenbakia. Horren bidez, ezarritako prezioaren portzentajea ordainduko da, edo hartara helbideratuko da hileko dirulaguntzaren ordainketa.
- Udaleko gizarte zerbitzuek interesgarritzat joko dituzten gainerako dokumentu guztiak.
- Eskatzaileak bere egoera baloratua izatea nahi ez badu, edo hura ongi justifikatu ezean, bere egoera ekonomikoa balizko itxarote zerrenda eratzen duen baremoan aintzat hartua izateari edo ezarritako laguntzei uko egiten diela ulertuko da. Beraz, zerbitzurako ezarri den kostua oso-osorik ordaindu beharko du, baita hori dokumentu batean gauzatu ere.
- Fotocopia de la última declaración del impuesto de la renta de las Personas Físicas, o en su defecto Certificado de Hacienda de no estar obligado a declarar.
- Certificado de ingresos provenientes de rendimientos de bienes inmuebles.
- Certificado de pensiones actualizadas emitidos por el organismo que la conceda.
- Certificado de todas las posiciones actualizadas, de las entidades bancarias donde tenga cartillas de ahorro, cuentas corrientes, bonos, acciones, láminas a plazo fijo, etc.
- Entidad bancaria y numero de cuenta corriente por medio del cual se realizara el pago del porcentaje mensual del precio establecido o donde se domiciliará el pago de la subvención mensual.
- Cualquier otra documentación que a juicio de los servicios sociales municipales sea de interés.
- Si la persona solicitante no desea que se valore su situación o no la justifica fehacientemente, se considerará que renuncia a que su situación económica sea considerada en el baremo que configura la lista de espera si la hubiera o a las ayudas establecidas. Por lo tanto estará obligado a pagar el coste total establecido del servicio, lo que obligatoriamente formalizará en un documento.

Eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioa osorik aurkezten ez bada, edo hartan okerrak antzematen badira, eskatzaileari aginduko zaio ondorengo hamar egunetan falta diren dokumentuak aurkeztu edo

Si la documentación presentada junto con la solicitud fuera incompleta o defectuosa, se le requerirá a la persona solicitante para que en el plazo de 10 días aporte la documentación necesaria o subsane los defectos observados,



antzemandako okerrak konpon ditzan; orobat, horrela egin ezean, eskaera bertan behera geldituko dela jakinaraziko zaio.

Eskatzaileak Udalari baimenduko dio datuak egiaztatu edo biltzera bideratutako ekintza egokiak abian jar ditzan. Datu horiek mugatuko dira eskatzaileak arautegi honetan ezarritako betebeharrak betetzen dituela frogatzera eta, behar denean, zerbitzua finantzatzeko betebeharrak eta baliabide ekonomikoak egiaztatzen.

Eskatzaileak datu faltsuak ematen baditu edo datuak ezkututzen baditu, baliabide edo zerbitzua eskatzeko eskubidea galduko du, horretatik ondoriozta daitezkeen erantzukizunei utzi gabe.

### *9. artikulua. Izapideak.*

#### 9.1. Balorazioa.

Pasaiaiko Gizarte Ekintza Saileko Gizarte-laneko teknikariek egingo dituzte eskaeraren izapideak, balorazioa eta ebazpen proposamena.

Teknikariek aurkeztutako dokumentazioa aurkeztuko dute, baita elkarrizketak, etxez etxeko bisitaldiak eta kudeaketa egoki guztiak burutu ere, honako alderdi hauek baloratzeko:

- Eguneroko bizitzako jarduerak burutzeko laguntzen beharra: eguneroko bizitzan moldatzeko ahalmena, eta autonomia, ingurunearen gaineko kontrola eta hautatzeko aukerak sustatzeko laguntzen beharra. Alor honetan baloratuko dira eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak eta eguneroko bizitzako jardura instrumentalak.

haciéndole saber que, en caso contrario, se le tendrá por desistida de su solicitud.

El/la solicitante autorizará al Ayuntamiento para realizar las gestiones oportunas a fin de verificar o recabar datos que le conciernen. Dichos datos deberán limitarse exclusivamente a la comprobación del cumplimiento por parte de la persona solicitante de los requisitos establecidos en el presente reglamento y, en su caso, a la verificación de los requisitos y recursos económicos para la financiación del servicio.

La falsedad y ocultación de datos dará lugar a la pérdida de la condición de solicitante de un recurso o servicio, sin perjuicio de las responsabilidades en las que se pudiera incurrir.

### *Artículo 9. Tramitación.*

#### 9.1. Valoración.

La tramitación, valoración y propuesta de resolución de la solicitud será realizada por los/las técnicos en Trabajo Social del Centro de Servicios Sociales de Pasaia.

El personal técnico analizará la documentación presentada y realizará entrevistas, visitas domiciliarias y cuantas gestiones procedan para la valorar los siguientes aspectos:

- Necesidad de apoyos para la realización de las actividades de vida diaria: capacidad de desenvolvimiento en la vida diaria y necesidad de apoyos para fomentar la autonomía, el control sobre el entorno y las posibilidades de elección. En esta dimensión se valorará tanto lo relativo a las actividades de vida diaria básicas como las



- Elkarbizitzako eta gizarte laguntzako egoera: gizarte harremanen ondorio diren baliabideak aztertzen dira, pertsonak bere beharrei erantzuteko zenbaterainoko laguntza duen jakiteko.
  - Eskatzaileak bizitokia duen, bertan zenbat denbora eman dezakeen eta hartatik zein alderdik eragin dezaketen garapen autonomoko mailan, ingurunearen gaineko kontrolean, hautatzeko ahalmenean eta bertan laguntzeko aukeretan (irisgarritasuna, bizigarritasuna eta ekipamendua).
  - Egoera ekonomikoa: eskura dituen ondasunak eta horien balioa.
- actividades instrumentales de la vida diaria.
  - Situación de convivencia y apoyo social: estudio de los recursos derivados de las relaciones sociales, para conocer el grado de apoyo que la persona dispone para cubrir sus necesidades
  - Disponibilidad de alojamiento en el tiempo y aspectos del mismo que pueden condicionar el grado de desenvolvimiento autónomo, el control sobre el entorno, la capacidad de elección e incluso las posibilidades de recibir ayuda y/o apoyo en el mismo (accesibilidad, habitabilidad y equipamiento).
  - Situación económica: entendiendo como tal la cuantía y disponibilidad de bienes.

## 9.2. Proposamen-txostena.

Gizarte-laneko zerbitzu teknikoek derrigorrezko gizarte txostena egingo dute; horretan, honakoak zehaztuko dira:

- Zerbitzuan sartzeko eta eskaera aurkezteko baldintzak betetzen direla, edo hura alde batera uzteko arrazoiak.
  - Eskatzailearen eta, behar denean, harekin bizi diren senideen baldintza pertsonal, familiar eta sozialak.
  - Pertsonaren eta/edo bere lege ordezkariaren borondate argia.
  - Behar denean, zerbitzua bertan behera uzteko proposamen arrazoitua.
- Txostenak puntuazio bat emango du, I. Eranskinean zerbitzu bakoitzean txertatu ahal izateko ezarri den baremoaren arabera.

Eskaera zehatz bat bideratzen ari den bitartean, eskatzailearen beharrei eskatutako zerbitzuaren bestelako bat hobeto egokitzen zaiela antzematen bada, hori jakinaraziko zaio

## 9.2. Informe-Propuesta.

Los servicios técnicos de Trabajo Social elaborarán un informe social preceptivo que determinará:

- El cumplimiento de los requisitos de acceso al servicio y de presentación de la solicitud o motivos para su exención.
- Circunstancias personales, familiares y sociales de la persona solicitante, y en su caso, de su unidad convivencial.
- La voluntad expresa de la persona y/o su representante legal.
- En su caso, propuesta motivada de denegación del servicio.

El informe otorgará una puntuación de acuerdo con el baremo de acceso correspondiente a cada servicio establecido en el Anexo I.

Si durante la tramitación de una solicitud concreta se apreciara que es más idóneo otro recurso social diferente al solicitado para atender las necesidades del/la solicitante, se le notificará este hecho al/la interesado/a para que un plazo de 15 días realice las



interesatuari, hark, 15 eguneko epean, horren inguruko erabakia har dezan. Epe horretan adostasunik azaldu ezean, hasierako eskaerari eusten diola ulertuko da, eta hura bideratuko da.

*10. artikulua. Txostenaren ebazpena.*

Hirugarren adineko atalak eskaera aztertu eta baloratu ondoren, alkateari igorriko dio proposamen txostena, eta hark ebazpen arrazoitua emango du, eskatutako zerbitzu edo baliabidea eskuratzeko eskaera onartuz edo atzera botaz.

Ebazpena gehienez bi hileko epean emango da, eskaera udal Erregistroetan sartzen den unetik aurrera. Epe hori luzatu ahal izango da, eskatzaileari eskaera zuzen dezan eskatzen zaionean, jakinarazpena bidaltzen zaionetik erantzun arteko denboran, eta, erantzunik ezean, emandako epea amaitu artean. Gainera, Gizartekintzari eskatzailearen autonomiaren balorazioari buruzko derrigorrezko txostena eskatu behar bazaio ere, hasierako epea luzatuko da.

Aurreko atalean aurreikusitako epean ebazten ez bada eta ebazteko betebeharrari kalterik egin gabe, eskaera ez dela onartu ulertuko da. Hala, interesatuak aukera izango du hautazko berraztertze helegitea edo Administrazioarekiko auzi-helegitea jartzeko.

Ebazpenak mota hauetakoak izan daitezke:

a) Eskaera onartzen da eta eskatzaileari plaza bat esleitzen zaio, plaza hutsik bada. Ebazpenean esleipenaren baldintzak adieraziko dira (iraupena, aurreikusitako hasiera eguna, zerbitzuaren kostua, pertsonak zerbitzuarengatik ordaindu beharreko kantitatea, udalak hobariak emango dituen eta horien zenbatekoa, eta abar).

consideraciones que considere oportunas. Si no muestra su conformidad en dicho plazo se entenderá que mantiene su solicitud inicial que habrá de ser resuelta expresamente.

*Artículo 10. Resolución del expediente.*

Una vez estudiada y valorada la solicitud por la Sección de la Tercera Edad, el informe-propuesta será elevado a la Alcaldesa que emitirá resolución motivada, estimando o desestimando la solicitud de acceso al servicio o recurso solicitado.

La resolución habrá de producirse en el plazo máximo de dos meses desde la entrada de la solicitud en alguno de los Registros municipales. Dicho plazo se suspenderá cuando se requiera la subsanación de las solicitudes por el tiempo que medie entre la notificación y su cumplimiento o, en su defecto, el transcurso del plazo concedido o cuando deba solicitarse el informe preceptivo de la Diputación Foral de Gipuzkoa sobre la valoración de la autonomía del/la solicitante.

Transcurrido el plazo previsto en el apartado anterior sin que se haya adoptado resolución expresa y sin perjuicio de la obligación de resolver, se podrá entender desestimada la solicitud a efectos de permitir al/la interesado/a la interposición del recurso potestativo de reposición o contencioso-administrativo.

Las resoluciones serán:

a) De estimación de la solicitud y asignación de una plaza cuando existiera una plaza vacante. En la resolución se indicarán las condiciones de la asignación (duración, fecha de inicio prevista, el costo del servicio, la cantidad que debe abonar la persona usuaria por el servicio, las bonificaciones municipales concedidas, si hubiera

b) Eskatera onartzen da, baina eskatzaileari adierazten zaio bere izena zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan sartzen dela, plaza huts bat egon arte.

c) Eskatera ez da onartzen, eskatzaileak arautegi honetan bildutako sarrera betebeharrak betetzen ez dituelako edo eskatutako zerbitzu edo baliabidea bere beharretara egokitzen ez delako. Ebazpenak eskaera onartua ez izateko arrazoen berri emango du.

Ebazpena legeak agindutako epe eta betebeharrak errespetatuz jakinaraziko da, eta haren aurka, hautazko berraztertzeke helegitea jarri ahal izango da, Alkatearen aurrean. Bestela, zuzenean egin ahal izango da haren aurka, Administrazioaren eskumeneko auzi ordenaren aurrean, legeak ezarritako epe eta baldintzetan.

## 2. ATALA. Plazak esleitu eta eskuratzeari dagokiena

### *11. artikulua. Plazak esleitzea.*

Plazak esleituko dira zerrenda ordenaren eta pertsona bakoitzaren beharren arabera, eta eskatzailearen behar pertsonalei erantzuteko baliabiderik egokiena bilatuko da. Horretarako kontuan hartuko dira, batetik, eskaera baloratu ondoren lortutako puntuazio osoa, eta, bestetik, bete beharreko plazen ezaugarriak.

Eskatera batzuek puntuazio berdina badute, lehentasuna emango zaie dagokien sarrera baremoan portzentajerik handiena duten ataletan puntu gehien biltzen dituzten eskaerei. Hala ere bi pertsonak baremoko atal guztietan puntuazio berdinari eusten badiote, udal teknikariek erabakiko dute baliabidea bietatik zeini esleitu.

lugar, etc.).

b) De estimación de la solicitud pero con indicación de que la persona interesada queda incorporada a la lista de demandantes del servicio hasta que exista una plaza vacante.

c) Desestimación por incumplimiento de los requisitos de acceso recogidos en el presente reglamento o por no adecuarse el servicio o recurso solicitado a las necesidades de la persona solicitante. La resolución deberá incluir los motivos de desestimación.

Contra la resolución, que será notificada en los plazos y con las formalidades exigidas por la ley, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Alcaldesa o ser impugnado directamente ante el orden jurisdiccional contencioso-administrativo en los plazos y términos establecidos legalmente.

## SECCION 2.ª De la asignación y el acceso a las plazas

### *Artículo 11. Asignación de plazas.*

Las plazas se asignarán por orden de lista y según las necesidades de cada persona, buscando el recurso más adecuado para cubrir las necesidades personales de la persona solicitante. Para ello se tendrán en cuenta por un lado la puntuación global obtenida una vez valorada la solicitud, y por otro las características de las plazas a ocupar.

En aquellas solicitudes que tengan la misma puntuación, se priorizarán las que tengan más puntos en los apartados con mayor porcentaje del baremo de acceso correspondiente. Si a pesar de todo dos personas obtienen la misma puntuación en todos los apartados del baremo la determinación de a cual de las dos personas se le asigna el recurso se someterá a criterio de los/las técnicos/as municipales.

Plaza hutsak aurreko paragrafoaren arabera esleituko dira, Alkatetzak zerrendan sartzeko eskaera onartzeko emandako ebazpen berean, edo organo berak ondoren emandako ebazpenean, plaza bat hutsik geratzen denean. Azken kasu horretan, aurrez azaldu diren baldintza guztiak bilduko dira, eta ebazpena indarrean dagoen legeak agindutako epe eta betebeharrak betetz jakinaraziko da.

### *12. artikulua. Egoera larriak.*

Salbuespen gisa, eta premia larria duten kasuei erantzuteko, udaleko gizarte zerbitzuek prestazioa lehenbailehen eman eta hasteko proposamena egin ahal izango dute, eskaera ongi bete eta bideratu gabe egon arren. Plaza esleitu eta gehienez ondorengo 8 egunetan, eskaera bideratuko da, ohiko prozeduraren arabera.

### *13. artikulua. Plaza eskuratzea.*

Behin esleipena onartua izan ondoren, plazaren esleipendunak hura erabili beharko du azaldutako egunetik aurrera, edo gehienez ondorengo hiru egunetan. Epe horretan interesatua azaltzen ez bada, hari egotzitako arrazoiengatik, 3 egun gehiago izango ditu azaltzeko; hiru egun horiek plaza erreserbatzeko egunak izango dira, eta erabiltzaileak «plaza erreserba»ko egoerari dagokion zatia ordaindu beharko du. 6 egun igarota interesatua justifikatu gabe azaldu ez bada, bideratutako txostenaren ondorio diren eskubideei uko egiten diela ulertuko da.

Interesatuei ezarritako egun edo epean azaltzea galarazten dieten baldintza bereziak agertzen badira, eguna aldatzeko edo azaltzeko epea luzatzeko

Las plazas vacantes se asignarán, de acuerdo con el párrafo anterior, en la misma resolución de Alcaldía en la que se estima la solicitud de acceso a lista o por resolución posterior del mismo órgano, cuando concurra una vacante, en la que se incluirán en todo caso las condiciones de la concesión ya indicadas anteriormente, y que habrá de ser notificada cumpliendo los plazos y formalidades exigidas por la legislación vigente.

### *Artículo 12. Situaciones urgentes.*

De manera excepcional y para atender casos de extrema y urgente necesidad, los servicios sociales municipales podrán proponer el inicio e inmediata concesión de la prestación sin que la solicitud esté debidamente cumplimentada y tramitada. En el plazo máximo de 8 días desde la asignación de la plaza se procederá a la tramitación de la solicitud de acuerdo con el procedimiento ordinario.

### *Artículo 13. Acceso a la plaza.*

Aprobado el acceso, el/la adjudicatario/a de la plaza deberá hacer uso de la misma desde la fecha indicada, o en el plazo máximo de 3 días desde la fecha de acceso acordada.

De no producirse el acceso en dicho plazo por causa imputable a la persona interesada, ésta dispondrá de 3 días más para incorporarse, computándose estos 3 días como de reserva de plaza, y debiendo el usuario abonar la parte correspondiente a la situación de «reserva de plaza». Si pasados 6 días el/la interesado/a no se ha incorporado sin causa justificada, se entenderá que renuncia a los derechos derivados del expediente tramitado.

Cuando concurren circunstancias especiales que impidan el acceso en la fecha o plazo establecido, las personas



eskaera egin ahal izango dute. Alkatetzak, Gizarte Ekintzako Zuzendaritzak txostena egin ondoren, egun edo epe berria ezarriko du, Erabaki baten bitartez. Hala ere, baldintzen arabera, plaza hori eskatzaile zerrendako beste pertsona bati esleitu ahal izango zaio; kasu horretan, eskatzailea beste plaza bat hutsik geratzearen zain geldituko da.

Baliabide edo zerbitzuan txertatu aurretik, edo gehienez egun berean, Udalak erabiltzaileari jakinaraziko dio zerbitzuaren funtzionamendua arautzen duten arauak zein diren, pertsona horrek ulertzeko moduko hizkera erabiliz. Zerbitzuan sartzeak arau horiek onartzea ekarriko du, eta horrela gauzatuko da dagokion dokumentua izenpetuta.

Interesatuak programa edo baliabide zehatz bati dagokion plaza onartzen badu, baja emango zaio zerbitzu eskatzaileen gainerako zerrendetan. Orobat, esleitutako plaza onartzen ez badu, baja emango zaio baliabide edo zerbitzu zehatz horri dagokion eskatzaile zerrendan.

### 3.KAPITULUA. EGOKITZAPENA, SEGIMENDUA ETA ZERBITZU ALDAKETA

#### *14. artikulua. Segimendua eta ebaluazioa.*

Gizarte Laneko Teknikariek etengabeko segimendua egingo dute, zerbitzuak onuradunen beharretara egokitzeko; horretarako, beharrezkoak diren aldaketa guztiak proposatuko dituzte, eta, onuradunekin batera, proposatutako helburuak zenbateraino betetzen diren ebaluatuko dute.

Lehen harremana prestazioa hasi eta hamabost egunetara gauzatuko da, onuraduna zerbitzuarekin gustura

interesadas podrán solicitar cambio de fecha o la ampliación del plazo de incorporación, fijando nueva fecha o plazo mediante Resolución de Alcaldía, previo informe de la Jefatura de Acción Social. No obstante, si las circunstancias así lo aconsejan, se podrá adjudicar dicha plaza a otra persona de la lista de demandantes, quedando el/la primer/a solicitante a la espera de una nueva plaza vacante.

Con carácter previo al acceso al recurso o servicio, o en todo caso el mismo día, el Ayuntamiento informará al futuro usuario/a de las normas que rigen el funcionamiento del servicio, en un lenguaje y de una forma comprensible para la persona. El acceso al servicio conllevará la aceptación de dichas normas, lo cual se formalizará en la firma del correspondiente documento.

La aceptación de una plaza en un programa o recurso concreto supondrá la baja del interesado/a en las restantes listas de demandantes de servicios. Asimismo, la no aceptación de la plaza asignada supondrá la baja del interesado/a en la lista de demandantes de ese recurso o servicio concreto.

### CAPITULO 3. ADAPTACION, SEGUIMIENTO Y TRASLADO DE SERVICIO

#### *Artículo 14. Seguimiento y evaluación.*

Los/as Técnicos/as en Trabajo Social realizarán un seguimiento continuado de la adecuación de los servicios a las necesidades de las personas beneficiarias, proponiendo las modificaciones pertinentes y evaluando junto con las personas beneficiarias la consecución de los objetivos propuestos.

El primer contacto se realizará a los quince días del inicio de la prestación,

dagoen jakiteko.

Aldian-aldian ebaluazioak egin ahal izango dira, onuradunak eskatuta, prestazioa ematen duen erakundeak eskatuta edo zerbitzu bakoitzeko protokoloetan, kontratuetan eta/edo barne erregimeneko arautegian ezarritako moduan.

*15. artikulua. Ostatu zerbitzuetara egokitzeko aldia.*

Zerbitzuan sartu eta ondorengo hiru hiletan zehar, pertsonak egokitze pertsonaleko aldiaren daudela ulertuko da, batetik, zerbitzuaren ezaugarrietara eta funtzionamendura egokitzeko, eta, bestetik, pertsona guztientzako arreta eta ongizatea bermatzen dituzten gutxienezko elkarbizitza ohituretara moldatzeko. Erabiltzailearen erreferentziako Gizarte Laneko teknikariak eta zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresetako profesionalak une oro egongo dira harremanetan interesatuarekin, sortzen joaten diren arazoez hitz egiteko, eta zerbitzuetara ongi egokitzeko beharrezkoak diren irtenbideak bilatuko dira.

Erabiltzailearekin batera harentzako irtenbideak aukeratu eta probatu ondoren, hura baliabidera edo baliabidea hari egokitzeko zailtasunak daudela ikusten bada, edo baliabideak pertsonaren behar guztiak betetzen ez dituela baloratzen bada, teknikariak txosten bat egingo du horren berri emanez. Oinarrizko gizarte zerbitzuek eta/edo zerbitzua kudeatzen duen enpresako profesionalak Gizarte Ekintzako zuzendaritzaren eskura jarriko dute txosten hori, hark egoera baloratu eta proposamen bat egin dezan.

Gizarte Ekintzako zuzendaritzak eginiko proposamena erabiltzaileari igorriko

con el objeto de conocer la satisfacción de la persona beneficiaria con el servicio.

Periódicamente se podrán realizar evaluaciones bien a demanda de la persona beneficiaria, por solicitud de la entidad prestataria o en la forma establecida en los protocolos, contratos y/o reglamento de régimen interior de cada servicio.

*Artículo 15. Periodo de adaptación en los servicios de alojamiento.*

Durante los tres primeros meses posteriores al acceso, se entenderá que las personas se encuentran en período de adaptación personal a las características y funcionamiento del servicio, así como a los hábitos convivenciales mínimos que garantizan una correcta atención y bienestar para todas las personas. El/la técnico/a en Trabajo Social de referencia del usuario/a, y/o los/las profesionales de las empresas que gestionan los servicios, comentarán en todo momento con ésta los problemas que vayan surgiendo y se buscarán las soluciones necesarias para lograr una buena adaptación.

En el supuesto de que, tras haber intentado soluciones conjuntas con la persona usuaria, se aprecie la dificultad de adaptación de ésta al recurso o viceversa, o se valorase que el recurso no cubre adecuadamente las necesidades de la persona, la Jefatura del departamento de acción social valorará la situación y realizará una propuesta, previo informe del técnico/a correspondiente emitido por los/las servicios sociales de base y/o los profesionales de la empresa que gestiona el servicio.

La propuesta realizada por la Jefatura

zaio, eta horrek 15 eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko.

Gizarte Ekintzako zuzendaritzak, alegazioak aztertu ondoren, behin betiko proposamena igorriko dio Alkateari, eta horrek ebazpen arrazoitua emango du. Pertsona baliabidetik irtetea erabakitzen bada, alternatiba bat proposatuko da, horrelakorik bada behintzat.

### *16. artikulua. Baliabide edo zerbitzu aldaketa.*

16.1. Interesatuak eskatutako aldaketa. Arautegi honetan ezarritakoaren arabera baliabide edo zerbitzu bat erabiltzen ari diren pertsona guztiek eskubidea izango dute beste baliabide edo zerbitzu batera aldatzeko eskaera arrazoitu bat aurkezteko.

Zerbitzuen arteko aldaketa honako arrazoi hauengatik eska daiteke:

- a) Familia ekipamendu berrian biltzea edo familiak eskatzailea hartzea.
- b) Eskatzailea bere gizarte eta famili ingurunean egotea, bisitaldi eta harreman pertsonalen mesedetan.
- c) Eskatutako baliabidea egokiagoa izatea, ematen dituen zerbitzuei eta pertsonaren beharrei dagokienez.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek informazioa jasoko dute, eskatzailea bizi den zerbitzu edo baliabideari eta aldaketaren arrazoiei buruz, aldaketa egokia den baloratzeko eta aldaketa onartzeko. Ondoren, proposamen bat egingo diote Alkateari, eta horrek ebatziko du, eskaera jaso eta gehienez bi hileko epean. Epe hori ebazpenik eman gabe amaituta, eta ebazteko betebeharrari utzi gabe, eskaera ez dela onartzen ulertu ahal izango da, interesatuak hautazko berraztertze helegitea edo Administrazioarekiko auzi

del departamento de acción social deberá ser trasladada a la persona usuaria, quien dispondrá de un plazo de 15 días para formular alegaciones.

La Jefatura del departamento de acción social tras estudiar las alegaciones, realizará la propuesta definitiva a la Alcaldesa, quien resolverá motivadamente. En caso de resolver la salida de la persona del recurso, se propondrá una alternativa, si la hubiere.

### *Artículo 16. Traslado de recurso o servicio.*

16.1. Traslado a instancia del interesado/a.

Toda persona usuaria de un recurso o servicio cuyo acceso haya sido resuelto según lo dispuesto en la presente normativa, tendrá derecho a presentar una solicitud motivada de traslado a otro recurso o servicio.

Son causa para solicitar el traslado entre recursos:

- a) Reagrupamiento familiar en el equipamiento o acogimiento familiar.
- b) Mantenimiento del/la solicitante en su entorno social y familiar facilitando así las visitas y relaciones personales.
- c) Que el recurso solicitado sea más idóneo con relación a las prestaciones y las necesidades de la persona.

Los Servicios Sociales de Base recabarán información del servicio o recurso en el que resida la persona solicitante y de los motivos del traslado con el fin de valorar la conveniencia y conformidad del mismo. Posteriormente elevarán propuesta a la Alcaldesa que resolverá expresamente en el plazo máximo de dos meses desde la recepción de la solicitud. Transcurrido ese plazo sin que se haya adoptado resolución expresa y sin perjuicio de la obligación de resolver, se podrá entender desestimada la



helegitea jartzeko aukera izan dezan.

Plazak esleitzeko irizpide berriaren arabera, ebazten diren lau eskaeratik aldaketa eskaera bati emango zaio lehentasuna.

#### 16.2. Ofiziozko aldaketa.

Era berean, zerbitzuan sartu ondoren pertsonaren egoera fisiko eta funtzionala aldatzen bada, eta horrek mendekotasunaren beste balorazio bat egitea eragiten badu, eta, Gizartekintzak erabilitako eskalaren arabera eginiko balorazio berriaren ostean, pertsona mendeko gisa sailkatzen bada, erabiltzaileari edo bere familia edo ordezkariari proposatuko zaio Gizartekintzari eska diezaion mendekoentzako arreta espezializatuko bizitegi zerbitzu bateko plaza batera aldatzea.

Aurreko paragrafoan zehaztutako egoeran, pertsonaren jarduteko balizko ezgaitasun hori fiskaltzari jakinarazi behar bazaio, Gizarte Ekintza Alorreko Zuzendaritzak familiarik emango dio horren berri, hura beharrezko izapideak bideratzen has dadin. Familiarik ezean edo familiarik eskaera horri erantzun ezean, izapideak ofizioz bideratuko dira.

Orobat, Udalak ofizioz aldatu ahal izango du onartutako prestazioa, eginiko azterketa txosten teknikitik beharrezko intentsitatea jaitsi edo desagertu dela ondorioztatzen bada.

Erabiltzaileari dagokion zerbitzuan baja ematea proposatzen bada, proposamen hori hari edo bere lege ordezkariari jakinaraziko zaio, legeak ezarritako epe eta betebeharren arabera, eta 15

